

Prentsa oharra

Nota de prensa



Aste Nagusia bere distira guztiarekin itzuliko da Donostiara

Kanoikadak eta `Artillero´k hiriko 30 gunetan banatuko diren ekitaldiz betetako egitarau bati hasiera emango diote

2.188 pertsonen antolakuntza eta ekitaldietan lan egingo dute

Bi urteko etenaldiaren ondoren, kanoikada Alderdi Ederren entzungo da berriro, Donostiako Aste Nagusiaren hasiera gisa. Abuztuaren 13an hasiko da jaia, eta ekitaldiz beteriko egitaraua izango da, non proposamen tradizionalak eta mota guztietako publikoarentzako berrikuntzak izango diren.

Kanoikadak zortzi eguneko festari hasiera emango dio, eta bertan programaz gozatzeraz animatzen diren pertsona guztiek gustuko proposamenak aurkituko dituzte. Erraldoiek eta buruhandiek, zezen suzkoek, su artifizialek, kontzertuek, kirol jarduerak, kale antzerkiak, txarangek, dantza taldeak, herri kirolak, food truck-ek eta artisautza postuek kolorez eta festaz beteko dituzte hiriko kaleak.

'Artillero'-ren doinuek festari hasiera eman ostean, 'Holi Fest'-ak gozamenerako aukera emango die gaztetxoei Boulevardean, kolorezko bainu itzel batekin. Ondoren, txistularien alarde tradizionalak hartuko du lekukoa. Konstituzio Plaza musikaz beteko du, dibertitzeko aukera anitz eskainiko dituen aste bati hasiera emanez.

Aurtengo Aste Nagusiak 30 gune hartuko ditu. Hala, ohiko Boulevardari, Konstituzio Plazari, Sagueseri edo Alderdi Eder parkeari Aiete Jauregiko Lorategiak, Loiolako Erriberak edo Urumea Ibaia gehituko zaizkie.

Jaietako zinegotzi Jon Insaustiren esanetan, "bi urte geroago, Aste Nagusiaren esentzia berreskuratuko dugu, distira guztiarekin itzuliko da eta, hala espero dugu, errespetuzko eta bizikidetzako giroan, erasorik gabe".

Su Artifizialak eta Feriak bueltan dira

Donostiako Aste Nagusiari buruz hitz egitea Su Artifizialei buruz hitz egitea da. Nazioarteko lehiaketa hirira itzuliko da. Nabarmengarria da Ukrainako Dance of Fire Fireworks enpresaren partehartzea, errusiar inbasioak eta gerrak suntsitutako herrialde honi egingo zaion keinu gisa.

Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketa hilaren 13tik 20ra bitartean egingo da, 22:45etik aurrera, eta zortzi parte-hartzaile izango ditu. Hilaren 20an, eta festei agur esateko, euskal emakumeen abestiek osatutako soinu-banda bat izango da gozagarri azken gaueko erakustaldiarekin batera.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Insaustiren esanetan, “ekitaldi maitatuenetako bat berreskuratzen dugu aurten. 2019 urtean 800.000 pertsona gerturatu ziren su artifizialak ikustera, 100.000 eguneko. Oso datu esanguratsuak dira. Eta pozik gaude aurten ere berriz eskaini ditzakegulako”.

Zinegotziaren iritziz, “su artifizialek badiaren inguruan jende ugari bilduko dute, eta, hori izango da, ziur aski, milaka pertsonen hiriaz, bere distira osoan, gozatzeko izango duten aitzakia”.

Halaber, Sagueseko kontzertuek milaka pertsona bilduko dituen askotariko eskaintza oparoa eskainiko dute. Hala, Aste Nagusiko ekitaldi deigarrienetarikoak proposamen arras interesgarria eskainiko du: Izaro; La M.O.D.A.; Ariel Rot & Kiko Veneno; Zetak; Mitic; Ana Guerra; Green Valley, eta Gatibu.

Aurreko urteetako tradizioari jarraiki, feriak Paseo Berrian kokatuko dira, haur eta helduen gozamenetarako. Halaber, txikienek Koldo Mitxelenaren parean izango dituzte beraientzat feria egokiak.

Emakundek “Beldur Barik 2022” kanpaina egindako lanaz baliatuta, eta Asociación de Feriantes Autónomos de Euskadi elkartearen laguntzarekin, Paseo Berrian instalatuko diren feriek mundu mailan ezagunak diren eta entzule askok ezagutzen dituzten artisten artean hautatutako 160 abestiko errepertorioa eskainiko dute.

Urumea Jai Giroan eta Uliako Harria

Berrikuntzen artean Urumea Jai Giroan ekimena nabarmentzen da. Abuztuaren 15, 17, 18 eta 19an, 16:00etan, bisita gidatuak eskainiko ditu kanoan Urumea ibaiaren zehar, Arrauning elkartearen eskutik. Hilaren 15ean, eta 11:00etatik 12:30era, bisitaz gain “Erreka Mari Urumean” antzezlan eskainiko da eta ibaiaren garbiketa egingo da.

Hilaren 13an, eta 19:15ean, Trinitate Plazak Uliako Harria lehiaketa hartuko du, estreinakoz. Uliako Harria emakumezkoen harri-jasotze txapelketa. Hamar emakumek hartuko dute parte. Uliako Harria manipulatu gabeko 70 kiloko harri irregularra da. Uliako itsaslabarretatik atera zutelako hartzen du izena, emakume kirolarien artean ere harri-jasotzearen sustapena eta hedapenearen mesedetan.

Emakumezkoen lehiaketa gizonezkoen lehiaketarekin batera egingo da. Azken honen lehenengo edizioa duela 34 urte egin zen, eta, harrez geroztik, Igeldoko Harria da protagonista. Igeldoko itsaslabarretan aurkitutako 134 kiloko harria. Azken honek sei lehiakide izango ditu.

Erraldoiak eta txirrista

Aurtengo erraldoi eta buruhandiak ez dira bakarrik egongo abuztuaren 15ean, Ondare eta Bidasoaldeko lagunak bisita jasoko baitute. Talde osoa Abuztuaren 31 kaletik aterako da, irteera San Telmo Museotik egiteko eta ohiko ibilbideari hasiera emateko.

Abuztuaren 15ean eta baita 16an ere, Kursaalera Zurriola Terrazak gehien espero den berrikuntzetako bat hartuko du: Uretako txirrista bat, 100 metro luze, haurrentzat eta helduentzat egokia.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Familientzat lehiaketa gastronomikoa

Gastronomia Lehiaketak Aste Nagusiko ekitaldi erakargarrienetakoak dira. Marmitako, Paella edo Legatza lehiaketak nabarmendu daitezke. Izan ere, hauetan guztietan parte hartzeko nahi adina partaidek eman dute izena. Halaber, Arkume Menestra Lehiaketa egingo da, eta Familientzat Gastronomia Lehiaketa ere. Azken hauetan parte hartzeko <https://astenagusia.donostiakultura.com>. webgunean eman daiteke izena.

Inbertsio ekonomikoa eta feria inklusiboak

Udalak milioi bat euro inbertitu ditu aurtengo Aste Nagusiko jai-jardueretan. Halaber, 2.188 pertsonak egingo dute lan, antolakuntza lanetan eta jarduera ezberdinetan, programazioa arrakastaz eta istilurik gabe egin dadin.

Era berean, nabarmentzekoa da autismoaren espektroko nahasteak dituzten adin txikiko eta helduek atrakzioez gozatzeko helburuarekin ferialek zaratarik gabeko tarteak izango dituztela: abuztuaren 12, 17, 19 eta 22an, 16:30etik 18:30era.

Donostian, 2022ko uztailaren 28an